

ERBURUA OLAZTI S.L. UDAL SOZIETATE PUBLIKOAK KUDEATZEN DITUEN OLAZTIKO UDAL IGERILEKUETAKO SOROSLE-GARBITZAILE, ATEZAIN-GARBITZAILE ETA ASTEBURUKO GARBITZAILE LANPOSTUAK ALDI BATERAKO ETA LAN ERREGIMENEAN BETETZEKO BALDINTZAK

1- Xedapen orokorrak

1.1. Deialdi honen xedea da 2023ko udan Olatzagutiako igerilekuetan sorosle-garbitzaile, atezain-garbitzaile eta garbitzaile lanpostuak aldi baterako betetzea, lan-erregimenean.

1.2. Hautaketa-prozesua gainditzen duten izangaiek osatutako enplegu-poltsa bat sortuko da, puntuazio-ordena zorrotzaren arabera ordenatuta, 2023ko igerileku-denboraldian egon daitezkeen plaza hutsak eta bajak betetzeko.

1.3. Hautagaiak aukeratzeko, haien lanbide-esperientzia hartuko da kontuan.

1.4. Kontratua aldi baterakoa izango da, eta udal igerilekuak irekitzen direnean hasi eta ixten direnean amaituko da, hau da, ekainetik irailera bitartean.

Astebeteko probaldia ezartzen da, eta horretan Administrazio kontratugileak diskrezionaltasunez ebatzi ahal izango du prozesu honetan hautatutako langileekin egindako kontratazioak.

1.5. Sorosle/garbitzaileen lan-ordutegia honako hau izango da: astelehenetik ostiralera, 9:15etik 15:00etara eta larunbatetan, 11:00etatik 20:00etara, goizez; arratsaldeko txandan, berriz, astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 20:45era eta igandeetan, 11:00etatik 20:00etara. Nolanahi ere, Erburua Olazti SL udal sozietate publikoak noiznahi aldatu ahal izango du ordutegia, bera baita organo kontratatzailea.

Ordutegi horiek ezin dira aldatu, eta kontratatutako pertsonak horiei hertsiki jarraikiz bete beharko dute lanaldia.

1.6. Atezain/garbitzaileen lan-ordutegia honako hau izango da: astelehenetik ostiralera, 9:15etik 15:00etara eta larunbatetan, 11:00etatik 20:00etara, goizez; arratsaldeko txandan, berriz, astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 20:45era eta igandeetan, 11:00etatik 20:00etara. Nolanahi ere, Erburua Olazti SL udal sozietate publikoak noiznahi aldatu ahal izango du ordutegia, bera baita organo kontratatzailea.

Ordutegi horiek ezin dira aldatu, eta kontratatutako pertsonak horiei hertsiki jarraikiz bete beharko dute lanaldia.

1.7. Asteburuko garbitzaileek larunbat eta igandeetan lan egingo dute, 08:00etatik 11:00etara, eta Erburua Olazti SL udal-sozietate publikoak noiznahi aldatu ahal izango du, bera baita organo kontratatzailea.

1.8 Txanda-aldaketaren bat behar izanez gero, behar besteko aurrerapenarekin eskatuko zaio Erburuako presidenteari, eta hark ebatzi eta antolatuko du aldaketak zerbitzuak oztopatu ez ditzan.

1.9. Sorosle/garbitzaile lanpostuek Kirol Instalazioen Hitzarmenaren 4. taldean ezarritako lansariak jasoko dituzte; garbitzaile-atezainei, berriz, Kirol Instalazioen Hitzarmenaren 5. taldean ezarritakoak ordainduko zaizkie. Lansari horiek ere aplikatuko zaizkio asteburuan lan egingo duen garbitzaileari.

1.10. Kasu guztietan, Olaztiko Udalarri lagunduko diote honako hauek betetzen: urriaren 24ko 86/2018 Foru Dekretua, erabilera kolektiboko igerilekuen baldintza tekniko-sanitarioak ezartzen dituena; 742/2013 Errege Dekretua, erabilera kolektiboko igerilekuen baldintza tekniko-sanitarioak arautzen dituena; udaleko kirol-instalazioen erregelamendua, eta udal kirol-instalazioak erabiltzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantza, 2018ko otsailaren 1eko NAOren 23. zenbakian argitaratua eta Olazagutiako Udalak 2017ko irailaren 28ko osoko bilkuran onartua.

2-. Izangaien betebeharrak.

2.1. Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

A) Nazionalitate espainarra izatea.

B) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

C) Langabeen egotea edo lana hobetzeko inskribaturik egotea.

D) Bete behar diren eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

E) Euskaraz jakitea (B2 ahozkoa). Euskara maila egiaztatzeko organo eskudun batek emandako titulua aurkeztu beharko da eta titulurik eduki ezean, izangaiak proba bat gainditu beharko du hizkuntz gaitasun nahikoa duela frogatzeko, ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretuaren 4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Asteburuko garbitzailearen kasuan, B1 (ahozkoa) euskara-maila eskatzen da.

F) Sorosleen kasuan, sorosle- eta desfibriladore-ikastaroa, eguneratua, aurkeztu beharko dituzte.

G) Atezain-garbitzaile eta asteburuko garbitzaile lanpostuen kasuan, produktu kimikoei buruzko prestakuntza-ikastaro bat online egin beharko dute (igerilekuen mantentze-lanen titulua izan ezik). Udalak horretarako bitartekoak jarriko ditu.

Eskabidearekin batera eskabideak aurkezteko epean aurkeztu ez diren agiriak ez dira kontuan hartuko balorazioa egiteko orduan. Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3-. Prozedura.

3.1. Aurreko baldintzak betetzen dituzten langabeen edo enplegu-eskatzaileen zerrenda eskatuko zaio Altsasuko Enplegu Bulegoari, puntuazio handiena lortzen duten hautagaiak kontratatzeke esperientzia profesionala baloratzean datzan hautaketa-prozesua egiteko.

3.2. Izangaiek eskabidea eta eranskinetan ezarritako dokumentazioa Altsasuko Enplegu Bulegoan aurkeztu beharko dituzte, 2023ko ekainaren 13ko 14:00ak baino lehen.

Prozeduratik kanpo geratuko dira automatikoki oinarri hauetako 2. puntuan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak, E eta G letrei dagokiena izan ezik, horiek ezarritako moduan egiaztatuko baitira.

3.3. Udalaren egoitza elektronikoa eta iragarki-taula izango dira deialdi hauei buruzko iragarkiak argitaratzeko bide ofizialak.

4. Epaimahai kalifikatzailea.

Epaimahaiak honako hauek osatuko dute: Joseba Vizuete Ascargorta Erburua Olazti Sozietatearen Administrazio Kontseiluko lehendakariak, eta haren ordezkoa, legez ordeztzen duena: Izaskun Goikoetxea Iriarte andrea, Erburua, Olazti, S.L.ko langilea, eta haren ordezkoa, Lourdes Beunza andrea, Erburua Olazti, S.L.ko langilea, Erburua Olazti, S.L. udal sozietateko idazkari-bokal gisa eta legez dagokiona ordezko gisa jardunez.

Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertzeko eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen afera guztiak.

5. Probak.

5.1.- Euskara: Euskara-proba deialdi honetako 2.1.E oinarrian eskatzen den ezagutza agiri bidez egiaztatzen ez duten izangaiak egingo dute, baldin eta proba hori egiteko interesa adierazten badute eta eskabidean adierazten badute. Proba hori Sakanako Mankomunitatearekin elkarlanean egingo da, ekainaren 19an, ordu eta leku zehatzak aldeztuz aurretik iragarriko dira, bitarteko ofizialen bidez.

5.2 Merituen balorazioa:

5.2.1. Sorosleak/garbitzaileak:

Uretako sorosle gisa izandako esperientzia: puntu 1 emango da egiaztaturiko lan egindako bi hilabeteko, eta, gehienez ere, 30 puntu. Lan-bizitza edo enpresa-ziurtagiriak aurkeztu beharko dira aurkeztutakoaren egiazkotasuna egiaztatzeko.

5.2.2. Atezainak/ Garbitzaileak, baita asteburuko garbitzailea ere:

Garbiketa- eta harrera-lanetan izandako esperientzia. 6 puntu emango dira egiaztatzen den lan egindako urte bakoitzeko, gehienez ere 30 puntu. Lan-bizitza edo enpresa-ziurtagiriak aurkeztu beharko dira aurkeztutakoaren egiazkotasuna egiaztatzeko.

5.3 Lortutako puntuazioaren behin-behineko emaitzak 3.3 oinarrian adierazitako bitartekoetan argitaratuko dira, eta 2 egun baliouduneko epea emango da alegazioak aurkezteko.

5.4. Erreklamaziorik izan ezean, behin-behineko emaitzak behin betikotzat joko dira eta puntuazio handienetik txikienerako ordenan antolatuko dira. Puntuaziorik altuena lortu duten izangaiak proposatuko dira lanpostuetarako.

Merezimendu horiek egiaztatzeko, lan-bizitza edo enpresaren ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Eskabidearekin batera egiaztatu ez den dokumentazioa ez da kontuan hartuko.

8.- Organo eskuduna.

Epaimahaiak proposatuko dio Erburua sozietateko presidenteari puntuaziorik altuena lortu duten izangaiak izendatzea, Erburuako presidentea baita horretarako eskumena duen organoa.

9.- Errekurtsoak

Deialdi honen, oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka ondoko errekurtsuetako bat aurkez daiteke, hautara:

- a. Berraztertzeko errekurtsua, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b. Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori hasiko da errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean.
- c. Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

10.- Datu pertsonalen babesa.

Izangaien datu pertsonalak Olaztiko Udalaren ardurakoa den fitxategi batean sartuko dira, eta hautaketa-prozesu hori kudeatzeko erabiliko dira, betiere deialdiaren oinarrien arabera. Datuak ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko. Nolanahi ere, izangaien zerrendak Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko dira. Egingo diren datu-tratamenduak beharrezkoak dira interes publikoaren alde egindako deialdia garatzeko (2016/679 Erregelamenduaren 6.1.e artikulua).

Hautaketa-prozesua gauzatu bitartean eta alderdiek espedientearen inguruan aurkeztu ditzaketen jardueren preskripzio-epeetan gordeko dira datu pertsonalak. Prozesu guztia amaitzean behar ez diren datuak ezabatuko dira, betiere aplikatu beharreko artxibo eta dokumentuei buruzko foru araudian ezarritakoarekin bat.

Datuen titularrek eskubidea izango dute euren datu pertsonalak eskuratu, zuzendu (okerrak direla uste badute) edota kentzeko (beharrezkoak ez direnean). Legez aurreikusitako kasuetan ere erabili ahal izango dute tratamendua mugatzeko eskubidea, bai eta aurka egitekoa ere, egoera jakin batzuetan eta beren egoera partikularrarekin lotutako arrazoiengatik. Horretarako, Udalera jo beharko dute, eta han emanen zaizkie ereduak eskubide horiek gauzatzeko Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Datuak babesteko Espainiako Agentzian (agpd.es), betiere tratamenduak indarreko araudia betetzen ez duela uste badute.

Hautatutako pertsonak baimena ematen dute Erburua Olazti, S.L. sozietateak Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean egiaztatu dezan hautatutako pertsona ez dagoela bertan erregistratuta. Izan ere, adingabeekin lanbide, ogibide edo jarduerak egin nahi dituen orok ezin da inolaz ere Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean inskribaturik egon, hala ezartzen baitu Haurrak babesteari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatutako urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak, bai eta Boluntarioei buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak ere.

Olaztin, 2023ko ekainaren 6an

Lehendakaria,

Sin.: Joseba Vizuete Ascargorta

I. ERANSKINA LAN-POLTSARAKO ARAUAK: DEITZEKO IRIZPIDEAK

- 1.- Deialdi honen xedea da hainbat lanpostu betetzea 2023ko udan Olaztiko udal-igerilekuetan aritzeko eta lan-poltsa bat osatzea lanpostu horiek betetzeko. Lanpostuak aldi baterako eta lan-araubidekoak izango dira. Hona lanpostuak: garbitzaile-soroslea, garbitzaile-atezaina eta asteburuko garbitzailea.
- 2.- Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta administrazio organo eskudunek noiznahi aldatu ahalko dute.
- 3.- Puntuazio ordenaren arabera egingo dira beti ere deiak, ondoko paragrafoetan ezarritakoari kalterik egin gabe.
- 4.- Telefonoz, posta elektronikoz edo interesdunarekin komunikazio azkarra eta arina ahalbidetzen duen beste edozein bitartekoren bidez egingo dira jakinarazpenak.
- 5.- Udalak bi jakinarazpen- edo abisu-saio egingo ditu egun bateko epean. Kontuan harturiko lan-poltsan dagoen pertsonak gehienez ere 12 orduko epean onartu edo gaitzetsiko du eskaintza. Ezin izan bada harekin harremanetan jarri, edo eskaintza ez balitz onartuko, puntuazio ordenaren arabera zerrendan dagoen hurrengoari egingo zaio eskaintza.
- 6.- Hautagaiekin harremanetan jartzeko eginiko saio edo/eta tramiteak erregistratuko dira, eta, hala behar izanez gero, horien aldetik jasotako erantzunak.
7. – Lanean hasi eta kontratuari uko egiten dion pertsona zerrendatik kanpo geratuko da mugarik gabe.
8. – Izangaiak ez dira izangaien zerrendatik kanpo utziko, baldin eta, deitzen dietenean, gaixotasunaren edo istripuaren ondorioz aldi baterako ezintasun-egoeran daudela alegatzen badute, Gizarte Segurantzako medikuak emandako ziurtagiriaren bidez.
9. – Poltsa hau 2023ko igerileku-aldirako bakarrik egongo da indarrean.

II ERANSKINA: ESKAERA
ANEXO II: INSTANCIA

D. / D^a.....jauna / andrea

mayor de edad con DNI:.....NANa duena eta adinez

nagusia

con fecha de nacimiento:.....jaioa eta

y domicilio en :.....helbidea duena

Teléfono:..... Telefonoa

Posta elektronikoa / Correo electrónico:.....

ADIERAZTEN DU / EXPONE QUE:

• Garaiz eta behar bezala betetzen ditu deialdian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak / *Cumple en tiempo y forma, con todos y cada uno de los requisitos exigidos en la convocatoria.*

• Honako hauen fotokopiak aurkeztu ditu:/*Aporta fotocopia de:*

- NAN / DNI
 - Curriculum vitae, bizitza laborala edo entpresen ziurtagiriak / *Curriculum vitae, vida laboral o certificados de empresa*
 - Sorosle-lanpostuari dagokion titulazioa (2.1F)/garbitzaile-lanpostuari dagokion prestakuntza, hala badagokio (2.1G) / *Titulación correspondiente al puesto de socorrista (2.1F) / formación correspondiente al puesto de limpiador/a, si es el caso (2.1G)*
 - Euskarazko titulazioa / *Título euskera*

Eskatutako euskarazko titulazioa eduki ezean / *En caso de no poseer titulación exigida en euskera:*

Euskara proba egin nahi dut: BAI EZ
Deseo realizar prueba de euskera SI NO